

BANAKETA-KANALAK

Nola bidaliko diogu gure bezeroari produktua?

Denda fisikoa eta webgunea edukiko dugu. Beraz, bezeroak aukeratuko du baliabiderik erosoena erosterako orduan. Webgunearen bidez egiten badu, erosketa eginda dagoenean bezeroaren etxera bidaliko dugu. Produktua helmugara iristeko epea bi egunetik hiru egunetara bitartekoa izango da, horrela, norbaitek ezkontzaren bat baldin badu azken momentuan, arazorik gabe erosi ahal izango du gure produktua, egun gutxi beharko baitira bertara iristeko. Berriz erosketa denda fisikoan egiten badu produktua berehala izango du bere eskuetan.

KOMUNIKAZIO-KANALAK

Nola ematen diegu gure bezeroei gure balio-proposamena?

Argi dago adin ezberdinetako bezeroak izango ditugula. Hori dela eta, ez diegu bezeroen segmentu guztiei modu berean emango gure balio-proposamena.

Gaur egun nerabeek eta gazteek ez dute telebistarik edo egunkaririk erabiltzen, haien denbora librean sare sozialak erabiltzea nahiago baitute. Hori kontuan izanda, nerabeei eta gazteei gure produktuaren publizitatea helarazteko sare sozialak erabiliko ditugu bereziki. Adinekoei helarazteko, ordea, ez dugu sare sozialak erabiliko, hauek ez dute sare sozialik erabiltzen-eta. Egunkarien bidez, ahoz aho eta dendekin akordioak eginez egingo dugu zapakoiaren publizitatea nagusientzako hain zuzen ere.

SALMENTA-KANALAK

Non egongo da salgai gure produktua?

Gure produktua erosteko hainbat bide edo modu egongo dira. Bezeroak erosketak fisikoki egitea nahiago badu, **Zapakoi dendak eskura edukiko ditu Euskal Herri osotik**. Hasiera batean soilik denda bakarra izango dugu. Hala eta guztiz ere, ezintasunaren bat edo erosketak online egitea nahiago duen horrek aukera izango du zapakoiaren gure webgunearen bidez erosteko. Zapakoiaren erosketen garraioa furgoneten bidez egingo dugu eta urteetan zehar hobekuntzak egongo dira.

